

Gure elkartean bezeroekiko harremanari garrantzi handia emango diogu, horregatik haiekin hartu-eman etengabea izango dugu. Bezeroekin harreman zuzena izango dugu, aurrez aurrekoa, gurekin momentu oro kontaktuan egongo gara.

Ekintza bakoitzak, arreta indibidualizatua izango duenez, hau da, Pertsonan Oinarritutako Planifikazioa, familiekin daukagun harremana oso estua izango da. Programa hau familiarekin batera egiten da, elkarrizketa eta batzarren bitartez, beraiekin pertsonaren plan propioak eta etorkizunerako metak sortzean datza, estrategiak barnean sarturik, beraien bizitza pertsonaleko planaren lorpenak betetzeko helburuarekin. Honek asko lagunduko digu familiekin harreman ona izaten. Horretaz gain, bezeroaren konfiantza lortzeko erarik onena delako, tratua zuzenekoa delako eta berarekiko komunikazioa jarraitu eta konstantea delako.

Urtero, hiruhileko bakoitza bukatzen denean, jaialdi bat egingo dugu, elkarteko familia eta erabiltzaileak elkartuz, eta elkar ezagutzeko. Bazkide direnak hiru hilero behin zozketa batean parte-hartzeko aukera izango dute, eta bertan, kiroleko arropa zozkatuko dugu.

Urtero ikasturtea bukatzen denean [ebaluazio](#) (bertan klikatuz ikus daiteke) bat pasatuko diegu, datorren urtera begira gauzak hobetzeko.

Azkenik, gure webgunean, online zerbitzu bat sortuko genuke bezeroak izango lituzkeen arazoak eta galderak konpontzeko telefono zenbaki baten bidez (Tlf. 677 777 777) edo laguntza buzoi baten bidez. Web atarian, “bezeroen kontsultak” agertuko da. Bertan bezero bakoitzak bere emaila idatziko du eta ondoren hutsune bat izango du galdera idazteko. Bi egun igaro baino lehen erantzuten saiatuko gara bere emailera.

Webgunean bezeroek kontsultak egiteko aukera izango dute, hemen atxikituta agertzen den bezalako ataria egongo da:

Emaila:

Galdera:

BIALDU